

2011-04-25 Sarako idazlen biltzarra

Gratien ADEMA-ZALDUBIren eskuizkribuak

Joan den urtean, Pazko astelehenez, hemen berean aurkeztu genituen batean Gratien Adema-Zaldubiren eskuizkribuen 3. liburukia: **“Kantikak”** eta laugarrena **“Prediku zenbait Hazparnen eginak”**.

Aitzineko urtean, 2009an beraz, aurkeztua genuen: **“Zaldubi artzain beltzaren neurtitzak”**.

Adema-Zaldubiren eskuizkribuak argitaratzeko, lehenbiziko liburukia, **“Saindu batzuen biziaz”**, atera genuen 2007ko abenduaren 20an Senperen, Zaldubiren heriotze mendeurrena ospatzearen karietarat.

Egun bortzgarren liburukiarekin gatoz: **“Alegiak eta bertze neurtitzak”**.

Baina lehenik, behako bat eman dezagun, Gratien Adema-Zaldubirenbizari :

—1828an sortu zen, Senperen eta 15 urterekin, Larresoroko ikastetxean dugu.

—18 urtetan, adin berekoa duen eta hain famatua bilakatuko den Jean Baptiste Elissambururekin, paratzen ditu beren lehen bertsuak.

—1853an apeztu-eta, Larresoron dugu irakasle.

—1854an Hazparnen bikario.

—1860an Bidarrain da erretore.

—1872an Atharratzerat izendatzen dute erretor nagusi; sekulako liskarrak eramanen ditu horko auzapez ‘gorriarekin’.

—1890ean Katedraleko Kalonje karguan jartzen dute, Iparraldeko hiru Lurraldeetan iraganik: Senpere, Larresoro, Hazparne, Bidarra eta Atharratze.

—1907an, abenduaren hamarrean eman zuen azken hatsa. Gorputza Senpereko etxondoko hilobi handian dagoela.

Anitz idatzi du eta kasik beti euskaraz. Azpimarratu behar da ere, Euskaltzaleen Biltzarra sortu zelarik 1901an, Euskal Herri osoko euskaltzale handienak bilduz, Adema-Zaldubi ezarri zutela buru.

Jakin behar da ere euskal akademia baten beharra sentitua zuela aspaldi gure Adema-Zaldubik, 1894ko Azkueri egin gutun batean ikusten dugunez.

Predikari gaitza zen, boz ederra, sineste eta kultura handiko apeza eta hortik abiatzen da haren obra guzia. Haren fede-irizpide batzuk aldatu dira, haatik, geroztik, bertze edozein jendarte alorretan gertatu den bezalaxe...

Adema-Zaldubiren lan asko argitaratuak izanak dira baina artxibategietan daude. Hortakotzat Euskaltzaindiak erabaki du haien berriz publikatzea, eskuizkribuekin hasiz, zinez merezi baitute.

Argi eta garbi errepikatzen dugu: liburuki hauek, ez direla edizio kritiko edo arakatzaille batzuk; zenbait xehetasun laburrekin datoz, nor edo nor irakurtzen laguntzeko gisan; hots, publiko zabal-zabal batentzat apailatuak dira. Ikerleek hor dituzte eskuizkribuak, denak irakurgarriak, hala beharrean.

Adema-Zaldubiren hizkuntzari dagokionez erran dezagun «lapurtera» deitzen den euskalkiari atxikia dagoela, nahiz hitz batzuk hartzen dituen bertzerenetan, Hegoaldeko zenbait barne.

Adizki batzuk, haatik, beti berdin erabiltzen ditu, behin ere hutsegin gabe; haietan: **gare, zare, zarezte, dire,** eta holakoak; ez dugu-eta ikusi, ez **gira, zira, zirezte, dira** bezalako formarik.

Guk ez dugu deusik idatzi berak idatzi ez duenik, ohargabekeriaz ez bada. Erantsi ditugunak makoen [...] artean daude. Egin duguna da, Adema-Zaldubiren lan gehienak ikuskatu ondoan, adibidez, **berdin** eta **bardin**, biak erabili baitzituen eta gure ustez adiera ñabardurarik sentiarazteko gogorik gabe, **berdin** ezarri dugu, batuan hala jarria delakotz. Halaber bertze hitz andana batekin. Baina grafia kontu horiek ikusiko dituzue xehekiago liburuan.

“Alegiak eta bertze neurtitzak”

Adema-Zaldubiren bortzgarren liburuki honetako eskuizkribuak, bi zati nagusitan paratu ditugu:

—lehenik, bere-bereak diren alegiak eta bertsoak, **“Ene loreak”**, berak eman izenburu baten pean;

—gero, bertze bertsogile batzuen lanetarik bildu zituenak [**Bertze batzuen lorategietan bilduak**] guhaurk asmatu titulupean.

Ohar gaitzen, haatik, bigarren zatiko bertso horietarik zenbait bederen —“Ikazkinaren mandoa”-tik aitzina doazenak bereziki— lehen zatikoak baino zaharragoak izan daitezkeela...

Liburuki honen ekarpen berezia dukegu: *“Jean de la Fontaine”* (1621-1695) frantses idazle guziz ospetsuaren alegia batzuen euskarazko itzulpen zenbait: lan horretan lehenetarik izan baitzen eta, beti bezala, axala eta mamia landu baitzituen, kaligrafia miresgarri batean idatziz gainerat.

Denbora bertsukoak ditugu Jean-Baptiste Archu (1811-1881) altzürükükoaren itzulpenak ere eta geroztik badakigu Jules Moulier “Oxobi” (1888-1958) olekari eta idazle handiak egin dituen itzulpen miresgarriak; baina uste dut hauek zerbait zor diotela Zaldubiren lanari...

Azpimarratu behar dugu ez garela hemen hitzez hitz eginikako itzulpen batekin; soilik alegiaren ideia eta protagonisten izenak atxiki ditu, erakaspen bera atxikiz helburu.

Alegia horiek, eta bertze batzuk, bertsotan ere jarri zituen. Ikus jadanik argitaratu lanean: “Zaldubi Artzain beltxaren neurtitzak”.

Baina, oroz gainera beharbada, liburuki honetako orrialdeak hain ederki apainduz, agerian gelditzen da euskararentzat zuen maitasun mugagabea.

Baieztatzen dira ere gizon horren bi aldeak: eliza kantikalari kartsua, Euskal Herriaren goresle beroa, lehen liburukietan jadanik ikusi dugun bezala, batetik eta bertzetik ostatu kantu xumeenen maitalea, serio sagoko haien artetik lasaitzeko balitz bezala...

Ez zituen bada baztertu kantu hunkigarriak ere: hain amultsuki idatzi baitzituen bere lanen artean Jean-Baptiste Camoussarry (1815-

1842), 27 urtetan hilen den apez gaztearen auhen bihotz erdiragarriak.

Ohar gaitzen ere mugaz bertzaldeko bertsoei hemen ematen dien behakoa. Idazkera, haatik naski, lerratu bide zaio, noiztenka, bere usaiako ortografiarat, edozein idazleri hain errexki gertatzen zaigun bezalaxe...

Orain goza ezazue haren lana: lehenik begiz, xehetasunak hautemanetz —letren apaindurak, marrazkiak...— barnean daukana hobeki sentitzeko.

Eta guziei, on dagizuela !

Alegiak eta bertze neurtitzak	
E n e l o r e a k	Belea eta Axeria Kuia eta Ezkurra Akerra eta Axeria Abereak izurritearekin Otsoa eta Bildotsa Axeria, Otsoa eta Zaldia Dupina eta Eltzea Betirisants [1846] Betirisants [bigarren bertsioa] Denboraz Moro-Sarasinen eta Eskualdunen artean gertaturikako gudu batez Eskualdunaren omore oneko kanta Eskualdunen omore txarreko kanta Primadera Zumalakarregi Andredena Mariari Zeruko Erreginari Aita Saindu, fedezko gauzetan ezin tronpa daite[kee]nari [Pilotari gazteak] [Chesnelong Jaunari] [Murde Diharassarry-ri] [Bidarrain nintzelarik] [Ene auzotegian bi senar emazte]
[Bertze batzuen lorategietan bilduak]	Zaldi zahar baten gainean Hiltzeko menean [den] gizon gazte baten gogoetak Zumalakarregi Alexisen heriotzearen gaineko bi artzainen solasak Lehen Errepublikako denboran egin zen besta baten gainean Bare baten gainean Eri baten gogoetak Eri baten liraren auhenak Ikazkinaren mandoa [Ezkerraren zamaria] [Solbezio arratsaldian, Arnegin, etxe batian] [Zer egin zare koplari zaharra ?]

Henri Duhau